

Euskal Erlijiotasunaz Zenbait burutapen historiko

Joseba Intxausti*

Erljioaren jatorria eta izaera argitu nahirik, lan kritiko handia egin zuen Mendebaldeko Filosofiak XVIII.az geroztik; beste gisa batean jardun du XX. mendeak, arloaz Fenomenologian eta gainerako Erljioen Zientzietan hainbat ekarpen eginez. Gaur egun hori dena ez da zerbait itxia eta bukatua, irekia eta ongi bizia baizik.

Bere muga apalen barruan, euskal jakintzak ere euskal erlijiotasunaren ezagutza osa-berritu ahal izan du aurreko hamarkadetan, Antropologiatik gehiago, nik uste, Teologiatik edo Historiatik baino. Lan horrek bere protagonistak izan ditu, eta hein handi batean talde-lana izan da, oraingoz ongien *Etnikeren* ikerlanetan ispilatu-

rik dagoena, eta, berrikitan, bestelako ahaleginik ere badugu (*Zainak*, 28, 2006).

Zientzietatik honago, gure aldizkari honetan erlijiotasunari buruzko leku pertsonal ugari bildu da (adibidez, *Hemen*, 5, 13, 15; 16. zenbakietan), eta *Jainkoaz galdezka* liburuan (Joxe Arregi. Alberdania, 2007) berrogei idazleren bizipen (ez)erlijiosoak eza-gutu ahal izan ditugu. Inkestatuek Jainkoaz eta erlijioaz orain gutxi arte ohikoak ez ziren interes eta askatasunez hitz egin dute, gainera.

Orrialde hauetan ez naiz hasiko aitorpen pertsonalak egiten; hala ere, euskal erlijiotasunaren historiak piztu

* Historialaria. "Kulturarako Euskal Fundazio"ko idazkaria. Donostia

dizkidan galdera edo zalantza batzuk aipatzeko aukera ez nuke galdu nahi. Dena den, esatekoak ohar eta itaunak gehiago dira, beste ezer baino.

1. Etnografiatik erlijio-zientzietara

Euskal kultur etniaren antzinakotasuna azpimarratzea oso gogoko izan da gure artean eta guri begira kanpotik gutaz jardun dutenen artean. Baiezta-pen horretarako euskararen lekukotasunetik argudiatu izan da gehienbat, eta XX. mendean Arkeologiak eta Etnografiak ere lagundu izan dute.

Arrasto berean, arreta berezia jarri da gure lehen erlijiotasuna nolakoa izan ote zen jakiteko, eta horretaz ikerlanik franko egin da argibide berri eta ziurragoak bilatzen. Bide honetatik, joan den mendeko Arkeologiak aurkikuntza handiak egin ditu, Paleolitoko gizakiaren erlijioaz argitasun berria ekarri dutenak: esate baterako, hainbat historialarientzat, Laperra (1904), Santimamiñe (1916), Altxerri (1962), Ekain (1969) eta abar “santutegiak” ere izango lirateke. Interpretazio horren arabera, kobazuloetako eremu franko-kantabriar honetan egon balegoke Historiaurreko euskal erlijiotasunaren lekukorik, orain 20.000 urte ingurutako aztarna erlijiosorik alegia. Gainerakoan, Arkeologiak topatutako lekuko sinboliko apurrek ez dute oraindik beren azken hitza esan.

Etnografiak bertatik bertarago bezala heldu nahi izan dio iragan urrun hartako euskal erlijiotasunari. Aha-lerin etnografiko horrek bere atzean hipotesi bat eta Eskola jakin bat izan zituen. Vienako Eskolako *Anthropos* aldizkaria eta Wilhelm Schmidt-en (1868-1954) obra erraldoia izan ziren (*Der Ursprung der Gottesidee*, 1912-1955), eta hipotesia, berriz, gaurko datu etnografikoak, ikerkuntza konparatuan metodologia egokiz erabilia, iraganaren ispilu onak gertatzen diren komentzimendua. Hau izango da, hain zuzen, Eskola honen indarra eta ahulezia, ondorengo kritikarien aurrean; baina zaila izango da berorrek egindako ekarpenaren balio osa-argigarria ukatzea.

Bestalde, Arkeologia eta Etnografiaren parean, erlijioaren Fenomenologiak eskaini dituen lanabes metodologikoak neurri mugatuagoan ageri zaizkigu euskal ikertzaileen lanetan, nahiz eta bide osagarri honek mereziko lukeen ahalegin hoberik.

Hutsuneak gorabehera, atzerriko ikertzaileen ibilerak gurean ere izan zituen bere segitzailleak. Gehiegi arriskatu gabe esan daiteke gure jakitunen ahalegin etnografiko-historiko hori emankorra izan dela, ez beharbada derrigorrez tartean zegoen teoria orokorraren balioa frogatzeko, baina bai urruneko euskal erlijiotasunera ere bide berrituetatik hurbiltzen hasteko.

Honek guztiak argitara ekartzen dizkigun Erlijio-Zientzien diziplinartekotasuna eta garaian garaikotasuna ez dira gurean arrotzak izan; alderantziz, nabariak eta aitortuak ere izan dira. Gogoratu besterik ez dago nola J. M. Barandiaran-ek Schmidt-en jarraitzaile bezala aitortu zuen bere burua, lehen informazio orokorrerako haren obra ere behin eta berriz aipatuz (hain zuzen, *Handbuch der vergleichenden Religionsgeschichte* zeritzana, Seminario eta Unibertsitateetan eskuliburu izateko 1930ean argitaratua, eta gaztelaniara dozena bat urte geroago itzulia).

Barandiaranen lanetan arretaz erreparatu ondoren, atzerriko maisuen iradokizunak hona ekartzen zabalago jokatu nahi izan zuen E. Sorazu-k orain hogeita hamar urte, *Antropología y religión en el pueblo vasco* ikerlanari heldu zionean (1979). Sorazuren aipuetan denetik dago: E. Durkheim edo S. Freud, R. Otto nahiz B. Malinowski, M. Eliade eta C. Lévi-Strauss. Horrela, bada, hainbat Eskola ezberdin aintzakotzat hartuta idatzi zuen liburuko “Erlijioaren eta mitoaren ikaslan zientifikoa” atala (25-62. or.).

Iker-joera horrek erakutsi duen begiramen bikoitza estimatzekoa da, geureari adi jardutean eta aldi berean kanpoko teorialarien ezagutzak gurera biltzean. Izan ere, euskal erlijiotasunaren sustraizko kode unibertsala balioz-

tatzeko bietaz baliatu beharko baita, hau da, berariazko gure esperientzia erlijioso ongi ezagutuaz eta erbesteko ikerlanen emaitzez.

Iraganean dugun funtsezko erlijiotasunaren azterlanak Historia Konparatua eskatzen du, besteen argitan ulertuko duguna, euskal sinesgaiak, mitoak, errituak, arauak, guztia ere tesuinguru erkatuan aztertzeke gai izango dena. Sakonean dugun errozko erlijiotasun unibertsalak –historian aldatuz eta aberastuz joan denak– merezi du eta behar du idatzi gabe dagoen bere Historia.

Lurzoru komun horren gain eraiki izan dira euskal erlijio-sistema historiko guztiak, Erlijio erakundetuak, norberaren isiltasunean eta gizartean modu arautuan eta antolatuan bizi izan direnak. Hemen ere Historia idatzi onik gabe gabiltza. Euskal Herriko Erlijio erakundetuen taxuzko historia idatzi orokorrik ez baitaukagu oraindik. Gaiari heldu zaionean, onenean Erlijio-Erakunde bakoitzaren historiak egin dira, ondoko Erlijioak aintzakotzat hartu gabe: Eliza kristauak alde batetik (eta bakarka), eta juduen *Sinagoga* edo *Umma* islamiarra ahaztuta.

Aipatutako guztiak eskatzen du gure historia erlijioso birpentsatu beharra Erlijio-Zientzia gaurkotuetatik ez ezik inguruan bizirik dagoen sekularizaziotik ere.

2. Erlijio-aniztasunean

Euskal Herria ez da Erlijio bakarrekoa izan. Alde batetik, erlijiotasun herri-tarrak bere gisako historia egin du, hainbat sinesgai eta jokabide aske eta aldakor duela, eta Erlijio ofizialagoek lagundu edo oztopatzen zutela. Historiarekin batera Etnografiak ere erakutsita dauka hori. Bestetik, gure aniztasun erlijiosoak gizarte antolaera sozial egituratuena Erlijio erakundetueta aurkitu du. Eta horiek beren ibilera historikoa izan dute, horietako bakoitza bere botere, eraketa, komunitate, arau eta doktrinarekin.

Erlijio-trukaketa prozesuetan, aurreko tradizioaren eta berrikuntzen arteko aldi-berekotasun luze edo laburragoak ezagutu izan dira, noski, elkarren baitan eraginez, eta esperientzia erlijiosoak partekatuz. Batak bestea ordezkatzean ere etena ez da izan erabatekoa, eta beti geratu da aurrekoaren aztarna edo ondarerik.

Hortaz, segidako edo elkarren pareko eta gisa ezberdinetako historiez ari gara hitz egiten.

Historia ezagunak erakusten digun neurrian, esan daiteke erlijiotasun apalenak ere laster hartu izan duela modu antolatu sozialen bat, eta euskal Antropologia erlijiosoak iradokitzen duenaren arabera, gure “jentilek” ere jakineko gizarte batean erroturiko erlijiotasuna zuten, hau da, Olinpo oso eta

hierarkikorik ez bazuen ere, “euskal mitologia” deitu denak bazuen behintzat sineskizunik eta sinestunen lagunarterik; beraz, nolabait ere gizartean eraturako erlijiotasuna izan behar zuen euskal jentilen munduak.

Ondoko historiak lausotu egin du, noski, iragan erlijioso haren oroitzapena, batez ere azalpen idatzirik utzi ez zigulako, eta, zer esanik ez, jentiltasuna galtzaile bilakatu zelako (galtzaileen memoria erraz ezabatzen da, hain zuzen). Gero, XX. mendeko euskal Etnografiak lagundu digu neurri batean haiengana hurbiltzen. Baina beti geratu zaigu erantzun zaileko galdera orokor bat: zer izan ote den kristautasunak jentiltasun hartatik jasota guganaino ekarritakoa?

Historiaurre urrun hartatik (eman dezagun orain 20.000 urtetik Kristau Aroa arte) proposamen erlijioso bat baino gehiago egon zen; “jatorrizkoaz” gain gutxienez indoeuropar eta zelden ekarpena lehenengo, eta erromatarren erlijioa gero. Denborarekin, Kristautasuna izan dugu garapen instituzional hedatuena lortu duen Erlijioa.

Erlijio-aniztasun horrek merezi du oharren bat edo beste.

3. Indoeuroparrak

Indoeuroparren etorrera olatu-aldi ezberdinetan gertatu zen Euskal Herrian: zelta-aurrekoak (jada K.a.ko

II. milakadaren hondarrean), zeltak (K.a.ko azken milakadan), erromatarak (K.a.ko bigarren mendean).

Lehen herri indoeuoparrek aurea hartu zieten zeltei Akitania eta Hispanian. Zoritzarrez, lehen herri haien nortasuna eta etorrera-kronologia zehazteko zailtasunak dituzte Arkeologiak eta iturri literarioek, eta are gehiago Euskal Herriko kasuan, hemen gutxi eta sakabanatuak izaki.

Indoeuoparren erlijioaz hainbat ikertzaile handik idatzi du, lehenik haien gizarteko oinarrizko eraketa aztertuz eta gero gizarte hartan erlijiotasunak izandako lekuaz jardunez. Indoeuoparren ezagutzaren mundu honetan, hizkuntzalaritza indoeuoparrek hartu zuen aurea, hizkuntza indoeuoparren familia “asmatu” eta deskribatzean (Bopp 1833-1849); bestalde, XX. mendean jakitun handiak izan dira indoeuoparren erlijioaz espresuki lan egin dutenak: G. Dumézil (1958), Benveniste (1969) edo M. Eliade (1976), adibidez.

Ez da ahantzi behar historialarientzat berriazko zailtasuna izan duela lehen indoeuoparren historia erlijiosoa ezagutzeak, erlijiotasun hori lehenik tradizio mintzatutik bizi izan baitzen, eta ez idatzitik, Liburu-Erlijioetan ere. Hala ere, hizkuntzalaritza konparatua suertatu da indoeuoparren proto-hizkuntza eta gizarte-kul-

turak, eta beroriekin batera, erlijioa deskribatzen lagundu duena. Lexikoen konparazioak iradoki du guztien jatorri bakarra: ‘jainkoa’, esate baterako, erro beretik datorkio hainbat hizkuntza indoeuoparri: *deus*, *deva*, *div*, *dieus*, *tivar*. Erlijio euoparren eraketa soziala ulertzeko ere, indoeuoparren ideologia hirukiaren banaketa orokorra azpimarratu da, eta erlijio erakundetuek gizarte indoeuoparretan izan duten lekua.

Horretaz guztiaz dakiguna jakinda eta Euskal Herriko indoeuoparren erlijiotasunaz jardun aurretik, premiazkoa da ezagutzea zein motatako presentziak izan zituzten Euskal Herrian lehen indoeuopar haiek, eta hau bera ere arazoa da, argitasun berriak behar dituen, iturri literario klasikoek Penintsula eta Akitaniarako bildu ziguten albistegia lehen indoeuopar haietatik hagitz berantagoa eta zeharbidezkoa baita.

Indoeuoparrak ondoan genituela, Aro Kristauaren aurreko lehen milakada aitzinetik euskal erlijiotasuna mundura irekirik ageri zaigu, Kristautasunaren aurretik guganaino heldu den iraupen luzeko eraginarekin. DUBY historialari sinetsi nahi badiogu, Erdi Aro euoparrek gizartean sistema hiruki indoeuoparra izan zen nagusi, eta horren luzapena gertatu zen gero, XVIII. mendea arte, Erregimen Zaharreko antolamendu sozio-erlijiosoa, nahiz eta aldi berean

Kristautasunak bere lehen jatorria mundu judu-semitan sustraitua izan zuen, eta ez indoeuroparrean.

Indoeuroparren familia handitik, **zeltak** izan dira gurean eta inguruetan. aztarnarik hurbilenak utzi dizkigutena, eta gaur egun haiekiko interes zaharra (zeltomania, deitu izan da) ikerbide hobeetara biltzen ari da. Kongresu eta Symposia-k ez dira falta izan azken hogeita hamar urteetan; eredugarria izan zen Europako zeltei buruzko Veneziako Erakusketa gaitza (1991).

Iturri literarioetatik jakin dezakegunaren arabera, badirudi Hispanian ez zela egon zeltarik K. a.ko IV. mende aurretik, eta etorri zirenean seguru aski olatu-aldi ezberdinetan iritsi zirela Penintsulara. Dena den, Hispania eta Akitaniako zelten erlijiotasunaz dakizkigunetan ez da falta oraindik hutsune eta lausorik.

Krutak behin eta berriz azpimarratu du testu klasikoek zein baliozko ekarpena utzi ziguten zelten erlijiotasuna deskribatzean (Zesar-en *De Bello Gallico* VI, 14); gainerakoan, lekuko bertatik bertakoena arkeologiarena dugu (santutegiak, kultu-ospakizunetako hondakinak, ikonografia eta beranduago epigrafia).

Gaur egun, Galietako zelten informazioa askoz osoagoa da Hispaniakoa

baino, eta Galietako erlijiotasun zelta sozialki eratuago ageri zaigu (bere apaiz druida eta guzti), eta jainkoen ikonografia aberats batekin, Hispanian ez bezala.

Erljiotasunari dagokion honetan, aztarnategietako identifikazio-zalantza guztien artean, zelten Euskal Herriko iragana hor dago. Leku-izenek geografia linguistikoa eman dezakete, eta aztarnategi zelta aberatsak badaude gaurko Euskal Herrian: Nafarroako Cortes eta Arabako La Hoya aipatzen dira kokaleku eta kultura zelta bistakoenak bezala.

Indoeuroparren Euskal Herriko aztarna erlijioso "euskal mitologia" deituan ere hauteman izan dute iker-tzaileek. Gerra-aurreko ikerlan historiko-etnografikoetan bezala oraintsuko lanetan ere. Bilakaera historiko baten barruko datuak dira, lehenagotik zetorren erlijiotasunari gehitu zitzaizkionak. Han-hemengo apurrak bilduta, Peñalver saiatu da K.a.ko I. milakadatik erlijiotasun-notiziak biltzen.

Azkenik, edozein jatorri egotzi nahi zaiela ere, megalitismoak bezala errauts-ontzien alorrek garaiko erlijiotasunaz zer esanik franko dute, eta Historiaurreko garrantzizko datu erlijiosoak dira.

Erromatarren bezperako eta lehen orduetako hemengo jatorrizko erli-

jio(ar)en albistegia K. Larrañagak bildu berri du, azalpen labur ongi agiritatua (2007): *El Hecho Colonial Romano en el Area Circumpirenaica Occidental*, “El fondo religioso ancestral” (531-550). Merezi du irakurketa pausatua, erromatartzearekin etorri baitzen gurera Erromaren erlijio-sistema ere.

Euskal Herriko historia **erromatarrak** aurrera-pausu estimagarriak eman ditu azken urteetan, nahiz eta gure erromatartze hura ez zen izan Betika-koaren parekoa. Urrats horiei esker, jakinaren gaineanago gaude gaur erromatartzeak Euskal Herrian izan zuen garrantziaz. Eta horrek lagun lezake Erromak euskal jendeen artera egindako ekarpen erlijiosoaz zerbait zehatzagorik jakiten.

Erromaren tradizioan, erlijioa ez da gertakari pertsonal edo sozial hutsa; izan ere erlijio erromatarrak izaera politiko publikoa baitzuen. Herri-Administrazio guztiari zegokion herritarren erlijiotasuna gorde eta modu politiko egokian bideratzea: Monarkiari bere garaian, Errepublikari gero, Inperio, Hiri eta Udalei beti. Jainkoei zegozkien kultura eta jaiera politikoki zaindu, sustatu eta arautuak izan ziren.

Horretan, Estatuak bere gain hartzen zituen erlijio-erakunde eta elkarteak, Erroman bertako erlijio-antolaera eta praktikak, eta Inperio osoko ospa-

kizun erlijiosoak. Horrek guztiak, modu batera edo bestera, bere ardura-dun eta zerbitzariak zituen (*pontifices, flamines, augustales, vestales*, etab.), eta nonahiko Probintzia eta Udalek ere beren zeregina zuten horretan.

Bestalde, ohiko jardueraren ondoran, ekimen pribatu eta publikoek santutegi eta jaiera berezi eta berriak susta zitzaizkion, eta gizarteko ongizate eta segurtasunerako jainkoen onginahia funtsezkoa zen sinestun erromatarrentzat.

Ofizialtasun horiek gorabehera, Estatu tolerantia zen Erromaren esanetara bizi ziren herrietako erlijio eta jainkoekin: ahalegindu zen bakoitzaren jainko-panteoia Erromakoaren argitan ulertzen, eta ulertu ez ezik guztien Panteoian aintzakotzat hartzen. Erromatarrena, erlijiotasun bateratzailea izan zen, guztien onerako jainko guztiak adiskide nahi zituena. Ez da harritzekoa, bada, garaiko ohitura sozial bati jarraiki, hainbat “euskal” jainko-jainkosaren izenak garaiko latinezko epigrafiak jaso izana, Akitanian bezala Hegoaldean ere: *Ilvumberri, Lacubegi, Baigorrixo*, etab.

“Erljio erromatarrak onarpen orokor osoa izan zuen Hispanian, iparraldean izan ezik”, idatzi zuen Blázquezek; baina, hori gorabehera, gurean zenbatekoa eta nolakoa izan zen begiratze-ko gaude orain, erromatartzearen

azken urteetako balantze berrikusiaren ondoren.

Esan bezala, gaurko Euskal Herriko lurraldetik harago, garaiko “euskal” lurrak ere gogoan hartuta, K. Larrañagak aurkeztu du Pirinio mendebaleko inguruetan ditugun aztarna erlijiosoen azalpena, iturriak zehazki aipatuz eta testu laburbildu erosoan; aipatutako iturriek eskaintzen dutena xehekiago ematea merezi du gaiak (551-558).

Erromatarren erlijio-bizitza euskal lurretan sozialki antolatzen ari zenean, eta beharbada antolatuena zegoenean, bestelako proposamen erlijiosoa ari zen hedatzen Inperioan eta Euskal Herrira iristen; gurean ere, nahi diren atzerapen guztiekin baina lehen urratsak ematen hasita zegoen Kristautasuna.

4. Kristautasuna: erlijio-aro nagusia

Horrela, *aro nagusia* esatean, hegemonia bakarra, iraunkorra, oro-hartzailea esan nahi dut, beharbada Neolitikotik honakoan behin bakarrik gertatu dena (edo sekula ez?): euskal herrialde guztietara iritsi dena, gizarte-talde orotara, pentsamolde eta balio guztiak bataiatu nahi izan dituen (eta neurri handi batean lortu ere egin duena) eta mende anitzetan indarrean egon dena, gizarte osora eta pertsona bakoitzarengaino heldu dena.

Baina Kristautasun hori ez da bere baitan bat bakarra izan, izaera eta aurpegi anitzekoa baizik: hasteko, Erakundeek esku-eskutik eramana izan dena bata, eta herritarra, bestea, bere gisara ere ibili dena, Erakunde erlijiosoek ondotik zaindu duten arren. Horrek berdintsu balio lezake Eliza kristau ezberdinentzat.

Eliza kristauen zikloak ia osorik besarkatu du Euskal Herriko erlijio-tasuna, gutxienez mila urte eta gehiagotan, nahiz eta inoiz Kristautasunaren barruko tirabira eta hautapen teologiko eta instituzionalek euskal gizartea fermuki tenkatu duten (XVI. mendeko Nafarroako egitasmo kalbindarra da horren adibide bat).

Kristautasunak (Eliza katolikoak, esan dezakegu hemen) eskainitako erlijio-ereduak gizon-emakumeen atxikimendu hertsia ezagutu ditu, beren leialtasunean eredugarri ere gertatu direnak (begira euskal santutegi ofiziala, eta isildutako ez-ofiziala). Testuinguru horretan, ortodoxian nahiz heterodoxian, munduaren “beste” izaeraren bila ibili eta idatzitakoak badiugu guk ere: bi aldeetako kasurik behar balitz, gogora M. A. Sorazu mistikaria edo, Kierkegaard-en arrastoan, M. Unamuno.

Eta zer esan apalki eta bakardade isilean giza misterioari adi bizi izan direnei buruz? Zorion, poz, atsekabe

edo larrialdi edo noraez anitz egon da mota guztietako sinestunen bihotz-adi-menetan. Bizi eta hiltzeko, gizakiak sarrienik bere baitan topatzen ditu galderak, eta sarritan erantzunak ere. Horrek bere historia kontagarria izan lezake Euskal Herriko Kristautasunaren iraganean.

Kristau aro nagusian, esperientzia erlijiosoa ez da beti kristaua izan, eta gogoan hartzekoak dira, gure historian zehar, *juduak* eta *islamiarrak*, erlijiotasun erakundetu jakin batean bizi izandakoak, babestuak izan ziren lehenengoak (izan ere, “*propios especiales del rey*” ziren juduak), baina une gaiztoetan erasoak (1328), garai batzuetan susmoz zainduak, erabaki zitalez eragotziak (1498) eta erbesteratu ondoren ere, Hegoaldeko Foruetan erdeinuz gogoratuak.

Islamiarrek lau mendetan izan zuten botererik Nafarroan (714-1119), eta gero ere bizitza ofizialki babestua izan zuten (1119-1516): testuinguru ezberdin horietan erlijiotasun islamiarra indarrean egon zen, ohiko bere bost aginduak betez (fede-aitorpena, eguneroko otoitzak, limosna, baraua eta erromesaldia). Azken buruan, ezarri zitzaizen hautabidea ez zen samurra izan: fedeak ukaturik bataiatu ala erbesterako bidea hartu.

Eta Kristautasuneko disidentziek ere behar dute gure arretarik: ez ditugu

“heretiko” aitortu asko izan beharbada, baina kristauen botere politikoez ez dute segi ahal izan, nonbait, tolerantziaren biderik, batez ere “*cuius regio illius et religio*” lelo-ikurrari jarraikiz (berdintsu balio izan zuen horrek katoliko eta protestanteentzat).

Eta, bestalde, zergatik ez gogorazi sorginen historia, ez Erteuropakoa bezain ankerra, baina Iparralde bezala (De Lancre) Hegoaldeko jo zuena, orain 400 urte (Logroño / Zugarramurdi, 1610-2010)? Boterea eta erlijioa dabilta hor elkarren artean zango-trabatuta.

Ohar orokorregi hauen ondoren, gure historia erlijiosotik arduratu nauten pasarte batzuk ekarriko ditut hona, beren soiltasunean.

4. 1. Kristautzeaz oharren bat

Euskal Herriko lehen kristautzearen presentziak atzeman, denbora-espazio zehatzetan ezarri eta aztarnen balioztapena egiteko, luzaro lan egin eta eztabaidatu da gure artean; hala ere, arrazoi ezberdinengatik, beharbada ez zuen horrek halako lan-izerdirik merezi, besteak beste kristautzeaz hitz egitean, zeresan sakon eta zabalagoa baita gizarteko eta herritar bakoitzaren kristautze-prozesu orokorraren historia, han-hemengo bataio sakabatuak edo Gotzaindegiren baten sortzea baino.

Historialariek jada erakutsita daukatenez, Europako mendebalde honetan, prozesuaren luzeak eta nolakoak du garrantzi gehiago, lehen orduko lekuko arkeologiko bakanek baino. Jakina da kristautze-prozesua hirietatik landetara hedatu ohi zela; baserri-aldeak izan zirela beranduen kristautuak. Palestinan bertan, Konstantino aurretik (313), landadatarren kristautzeak porrot egin zuen neurri handi batean; bestalde, Erromako kristauak I-II. mendeetan gehienbat ez latinoak ziren, eta gainerako Italian apenas zegoen kristaurik II. ean. Bizilagun greko-erromatarrez ari garela, Marko Aurelio-ren urteetan (161-180) eta San Ireneo tarteko, Lyon eta Vienne ziren kristau-multzo ona izan zutenak; hala ere, Galiako zelten artean misio-lana egiteko gaiztasunak aurkitu zituen honek (hizkuntzarena, batez ere). IV. mendearen hasieran Erroma ez da artean erabat kristaua; misiolari kristauak gorabehera, Italiako iparralde harrigarriro jentila zen, eta Italia erdialdeko landatarrak IV-V. mendeetan bakarrik kristautu ahal izan ziren.

Galiatako mendebaldean misiogintza ez zen hasi indar betean IV. mendea arte; garai berean “Alpeetako eskualdean, probintzia germaniarretan, Atlantikoko kostalde europarrean eta Irla Britaniarretan, misio kristaua, artean, bere hastapenetan zegoen”; beraz, testuinguru horretan begiratu beharko litzateke, Euskal Herriko kristautzea, bertako mendiaaldean behintzat.

Nahiko lan dago, bestalde, Penintsula Iberiarreko kristautzea nola joan zen eta zenbaterainokoa izan zen jakiteko, eta onenean ere Mediterraneo-aldea da gehiago ezagutzen dena; urrun eta lausoago geratzen zaigu Pirinio-aldea. Atzerapen hauen arrazoi nagusia Mendebaldeko (Ekialdea bestelako mundua da) eta lurralde hauetako kulturatze erromatar eskasagoan ikusi izan dute historialariek.

Hori horrela, Euskal Herriko kristautze-atzerapenak ez luke sobera harritu beharko: IV-VIII. mende haietan, gainerako landa-lurralde europarraren parekoa izan da gurea ere, eta testuinguru horretatik begiratu beharko litzateke hemengo kristautze-prozesua. Gizartea kristautu ahala, ermita, eliza propio, parroikia, monasterio edo monasterioak ugarituz joan ziren, eta santu kristauen lurraldeko hedapenak kronologia geografiko jakina iradoki du kristautze-ari dagokionez (V-IX. mendeak).

Honekin batera, era eta maila ezberdinean, ebanjelizazioak eliz jarduera osoaren inkulturazioa eskatzen zuen (katekesi eta predikuarena batik bat), herri berri bakoitzean egin behar zena. Ezer gutxi dakigu horretan Erdi Aro osoan zer eta nola lan egin zenaz, ezagutzen ditugun iturriek gutxi dakitelako, diozesi eta monasterioetako paperak latinez dabilzalako, Parrokien historiari apur eskasak iritsi zaizkigulako, etab. Zantzu guztiak daudela esan

daiteke inkulturazio-ahalegina kristautzearen lehen belaunaldietan besamotz ibili zela esateko.

Eliz egiturak gero eta eginagoak ageri zaizkigu, agintariak eta hierarkiak lagunduta, noski, baina baita gizarteko klase sozial indartsuenek eta herritar xumeen ekimenez ere (eliza propioen historia hor dago hori frogatzeko).

Zoritxarrez, errazagoa da eliz Erakundeak noiz sortu edo eliz eraikina noiz jaso ziren jakitea, nahiz monasterioek beren ondasun-ondarea nola bildu eta eratu zuten jakitea, herritarrek eta monjeek ere beren sinesmena edo eliz liturgia nola bizi izan zuten ezagutzea baino.

Erljio-bizipen pertsonalak eta “euskaldunak” urruntasun lauso batean galtzen zaizkio Erdi Aroko historialariari. Samurragoa da, hori baino, orduko eta geroko historia instituzionalari heltzea.

4. 2. Eliza: Izan al dugu “euskal Elizarik”?

Hasteko, esan dezadan hemengo Eliza bertako seme-alabek egin dutela, demografia horren gain garatu eta mantendu dela Eliza. Eta une jakin batzuetan, indar eta sendotasun handiz,

gainera. Zinez, gure jendea bihotz eta buruz Elizari atxikia izan da, orain gutxi arte. Arrakasta hori ezin zaio Elizari ukatu, eta herritarren leialtasun horrek gidatu du luzaro Euskal Herriaren iragana.

Besterik da, botere politikoek eta Eliza instituzionalak —elkarrekin edo bakoitzak bere aldetik— nola eratu izan dituzten gure lurraldeetan Eliza katolikoaren botere-barrutiak. Egiteko horretan hartutako erabakiek zuzenean baldintzatu dute Euskal Herriko nondik norakoa ez ezik nondik nolakoa ere.

Bertoko lurretan eta bertoko jendez egin eta gara zitekeen “euskal Eliza”, bertotik gobernatua, gutxienez Hegoaldeko batasun baten barruan, baina hori ezin izan da sekula gauzatu, bertako eta inguruko botere zibilek oztopatu dutelako, noski, eta Eliza konstantinotarrak lagundu ez duelako ere¹.

Elizako bi botere-piramideek, oro har, berdintsu jokatu dutela esango nuke, Diozesiek eta Institutu Erljiosoek, alegia². Diozesiei dagokienez, gogora dezadan 18 Diozesi ezberdinek gobernatu dutela Euskal Herriko Eliza, mendeak zehar, eta batzuek Gotzain-egoitza kanpoko lurraldeetan izan dutela. Gure Diozesi handi iraunkorrak

¹ Ez dut aipatu gabe utziko 1978an Hegoaldeko lau Herrialdeetako Gotzainek aurkeztuta, Espainiako Gotzain-Batzarrak berak onartutako euskal eliz probintziaren proposamena. *BOOSS*. 1978, *XXIX*, 593.

² Bistan dago ñabardura franko egin daitekeela arlo honetan, baina ez da hau egokiera horretaz luze-ago jarduteko.

Baiona, Iruñea eta Calahorra-koak izan ditugu. Hainbat eliz Probintzian banatuta egon dira “euskal” Diozesiak, betiere erbesteko zenbait Diozesirekin batera: Auch, Tarragona, Zaragoza, Burgos-ko Artzapezpikuak izan dira Probintzia horietako buruak.

Lurralde-barrutiei buruz dioguna eliz Gotzainen hautapenean ispilatzen da, noski: ez gure herri-agintariak, ez hemengo elizgizonek izan dute Gotzain-hautapenarako azkeneko esku-menik, eta, ondorioz, Diozesien buruak izendatzeko lanak kanpoan egin dira (Aro Modernoan, Paris eta Madrilera Erret Gorteetan, edo/eta Erroman).

Horrek guztiak ondorio latzak izan ditu: oro har, parte on batez euskaldun elebakarra zen lurraldean Gotzainek ia inoiz ez dute euskararik jakin, harik eta XX. mendean izendapen-politika, denbora batez behinik behin, aldatu den arte (1956-1995). Hala ere, Sinodoak (eta Gotzainak) arduratu ziren euskarazko dotrinak inprimatzeaz eta euskal predikua sustatzeaz; apaiz jende xumeari suertatu zitzaion tokian tokiko pastoral euskalduna segurtatzea, Gotzaina latinez edo gaztelania/frantses/gaskoieraz ari zen bitartean.

Eta zer esan Institutu Erlijosoez? Beranduko data batetik hasita, gure artean dugu zenobitismoa (VI. Mendean geroztik?); laster tradizio

beneditarrera bildu ziren Monasterioak (XI. mendea); etorri ziren Eskeko Ordenak ere (XIII. mendea), eta gero baita Trentoren arrastotan sortutakoak (jesulagunak eta abar); emakumezkoen Ordena eta Kongregazioak ez dira ahanztekoak. Mundu horrek guztiak bere loratze bikainena 1875-1965. urteetan ezagutu du. Institutu handienak eta gehienak sortzez kanpotik heldutakoak izan ditugu, baina gehienetan belaun gutxiren buruan bertakotu izan dira, lurrez eta jendez. Ia mende beteko goraldi horrek sabaia jo zuen 1965-1970. urteetan, baina horren aurreko erlijiosoen belaunaldiak dira gure historia guztiko unerik garaiena ezagutu zutenak, nazioarteko Eliza katoliko osoan kasurik deigarrietakoa izateraino.

Tradizio beneditarreko Monasterioen autonomia bere horretan utzita, Institutu Erlijosok, izaeraz, Estatu-arteak dira beren agente-antolaraeren aldetik, eta ia beti Euskal Herria barruti zabalagoetako parte izan da, batzuetan barruti-buruen egoitza Euskal Herrian zutela, eta maizago erbestean kokatuta. Holakoetan, faktore ezberdinek baldintza dezakete hemen bertako euskaltasuna: Ordena bakoitzeko Euskal Herriko Etxeen kopuruak, erlijioso-gaien jatorriak, barne-ikastetxeen kokapen geografikoak, Institutuaren tradizio inkulturatzaileak, euskal gizartearen une historikoak, etab.

Oro har esan dezagun Institutu Erlijiosoek beren barneko interesen politikatik abiatuz egin dutela lan, barrutiak eratzean bezala ondoko jardunean ere, harik eta nahiko maiz gurean ondo errotzera iritsi diren arte. Historia honek bere dialektika sozio-instituzionala izan du, eta ikustekoa da batez ere XIX-XX. mendeetan emakumezkoen Institutuen joka-moldea zein izan den.

4. 3. Euskal Herria bitan banatzen da

Euskal Herriko kristauek beti izan dute halako bitasun nabarmen bat: Iparraldearen eta Hegoaldearen artekoa, alegia, gisa ezberdinetan agerian egon bada ere, gehiegi erreparatu ez zaiona.

Hasteko, *diozesitarra* izan da batik bat Iparraldeko Eliza, Hegoaldekoa baino askoz gehiago, hemen izan ere Monasterio eta Komentu-sareak indartsuak izan baitira, diozesiekin batera eliz egiturak osatzen. Eta Iparraldean, besterik behar izan denean ere (Euskal Herrian bertako Institutu Erlijiosoak sortzean ere, esan nahi dut), erlijiosoak oso Diozesiarekin elkartuak ikusi ditugu, sorreratik eta ondoko jardunean (Belokeko beneditarrak, Angeluko Serorak, etab.).

Bi aldeetako euskal literaturak ere lekuko esanguratsuak dira bitasun

honetan: ekoizpen-kronologian eta argitalpenetan alde handia egon da batetik bestera. Liburu-idazketa ia dena eliztarrena zen garaietan, Iparraldeak Hegoaldeari bi mendetako alde irabazi ziola esan genezake. Adibidez, Iparraldeko Apezpikuek argitalpen mardulak babestu zituzten, gogoz sustatu ere; Hegoaldean ezdeusa izan zen laguntza hori.

Eliz barrutien historiari heltzen badiogu, jakingo dugu Baionako Diozesiak lurralde ederra izan zuela Hegoaldean ere, harik eta Felipe II.ak, Kontrarreformako ahaleginen barruan, diozesiarteko muga estatuartekora eramanez (1567); hala ere, Pedro Agerre urdazubitarra Saran izan zen Erretore, eta ez Elizondon, eta Arantzazuko Andre Maria Ainhoara eramanez (1665).

Eliz jendearentzat Ipar-Hegoaldeak elkarren babesleku izan dira estualdi politikoak etorri direnetan, hain zuzen indarrean zegoen bitasunari esker, eta ez ondoriorik gabe. Bizpahiru une gomuta ditzakegu: Iraultzakoan Hegoaldera etorri zitzaizkigun apaiz eta erlijiosoak (1789-1792), Hegoaldeko Esklaustraziokoan Iparraldera joan eta han eta handik izanberritze-bideak urratu zituztenak (1834-1875), edo Combes-en Kongregazio-legeek bortxatuta Hegoaldera ugari etorritako fraide serorak (1902-

1905). Zalantzarik gabe, Euskal Herri barruko diaspora “erbesterratu” horrek bere historialariak beharko lituzke.

Erromaren aginduz, Vatikanon II.aren ondoko lanek hautsi dute, partez eta hizkuntzari gagozkiola, bitasun banatzaile horren tradizioa, Liturgiako erreformarako euskarazko itzulpen bakarra eskatu eta ondoren bi euskal Aldeen arteko lankidetzaren indartzean. Garaian garaikoak izan beharrak lagundu du, noski, mundu katoliko osoko arauak erantzun beharrez.

4. 4. Modernitatearen arazoak

Modernitateak anitz izan dira, une historiko bakoitzak izan baitu bere etorkizunerako tamainaren bateko egitasmo berria, batzuetan mantso eta bestetan abiadura bizian ezarri zena.

Erljioek ere, bide berriak urratzeko, leialtasun, moldaketa eta etenen arteko hautuak egin behar izan dituzte, aldiaren aldiko modernitate-eskakizunei erantzuteko. Batez ere XVIII. mendetik hona, Kristautasunak bezala Judaismoak edo Islamak, garai berrietara moldatzearen erronka izan dute aurrez aurre.

Antzinatean bertan judu eta kristauek mundu greko-erromatarrari erantzun behar izan zioten (Alexandrian bezala Korinto edo Erroman), Erdi Aroan Filosofia eta Teologiaren

arteko harremana argitu behar izan zuten pentsatzaile kristau eta islamiarrek (Bagdad-en edo Parisen), botere politiko eta erlijiosoen arteko banaketa tenkatuak buruhausterik ekarri zuten (Inozentzio III), zientzia zehatzek ez zuten barkatu (Koperniko, Galileo), eta Mendebaldeko Filosofia galdera zorrotzak jarri ditu mahai gainean (Descartes, Kant), modernitate sozio-politikoaren aiantzi gabe (askatasun politikoak, laizitatea, giza-eskubideak, demokrazia).

Beti arazo berarekin: nola alda edo egoki tradizio finkatua pentsamolde, sentiera, baldintza sozio-ekonomiko eta kultural berrietara, hau da, nola molda aurreko mendeetatik jasotako ondare erlijiosoa, jakineko balio, irudikapen, sinbolo, jarduera eta sinesgai onartuek osatutako sistema eskakizun berrietara.

Ebanjelioak, fedeak, sinesmenak eta Teologiak ez ezik Zuzenbideak eta botere-grinak beren lekua izan dute, modernitatearen arazoa eztabaidara ekarri den bakoitzean. Erljio-erakundeak ez dira tarteko interesik gabe garatzen, eta erabiltzen, onerako eta txarrerako.

Iraultzak edo Desamortizazioak Elizari eraso ziotenean, Mendebaldeko gizarte kristaua bihurtu zen historiko batean aurkitu zen; baina aldakuntza ez zen egingarria gertatu indar eta indarkeriarik gabe, eta dena burutu zenean

irabazleak ez ziren izan, berehala eta zuzenean behintzat, pobreak eta klase xumeak (1789-1840).

Elizak bere presentzia berriztatu behar izan zuen, neke gogorrek pasatuta (eraso odoltsuak, erbestealdiak, esklaustrazioak, 1792 eta 1833-40), noraez itsu eta arbuio batzuekin (*Syllabus*, 1864), galera larriak jasanez (langileria edo intelektualenak, adibidez), estualdiren batekin (Italia/Erroma, 1870), aliatuak bilatuz (kolonialismoa/misioak), berreraikuntza-lanak hartuta (Kongregazio berriak, Leon XIII eta Pio XI.aren ahaleginak), ez krisialdiren bat edo pasatu gabe (Loisy eta modernismoa, zientzia biblikoen nahi eta ezinak), nahiz garaipen pirrotarren batekin (Espainiako Gerra Zibila, apaiz langileak, susmo teologikoak) edo Kontzilio txundigarri batekin (Vatikano II.a).

Euskal erlijiotasuna horrelako arazoan artean bizi izan da azken mendeetan, eta Eliza instituzionala zer esanik ez. Leialtasun handiak bizi izan ditu, tradizioari oso lotuak, “Jainkoa” eslogan politiko bihurtzeraino, Iparraldean bezala Hegoaldean, itxura guztien azpitik zetozen urek sekularizazioa ekarri duten arte, sekularizazio argitzailea ez ezik sekularizazio itsugarria ere.

Oraitxe bertan, badirudi urak beren onera etortzen hasita daudela, pausaldi bat hartuko dugula (aldizkari honetako hainbat elkarrizketa eta inkes-

ta da horren lekuko), orain gutxiko gure presak mantsotuz eta zinezko kultur elkarrizketa erlijiosoari ekinez, proselitismo maingurik gabe, begiak begietan jarritz, batez ere hurkoari bere eskubide guztiekin so eginez. Hala ere, beldur ere izan dakiok “ebidentzia” erlijioaren beste muturreraino lerratzeari.

Dagoeneko, kristauen arteko Ekumenismo maitatua motz geratzen zaigu (osasun onean ote dago, gero?), eta globalizazioarekin edo gabe Erljioen arteko harreman leialari heldu beharko zaio, hau da, Teologiatik Erljioen Zientzietaraino iritsi eta bakearen bilako ikuskizun politiko-mediatico ofizialetatik jatortasun leialago eta unibertsalagora jo. Erljio erakundetu gorritik guztion erlijiotasun pertsonalizaturako bidea hartu, alegia.

5. Betiko erro zaharretatik

Historiaurreak eta Historiak utzi dizkiguten lehen lekukoetatik dakigunaren arabera, Euskal Herriko gizarteak bere erlijio-aldea beti izan du bizirik berarengan. Hori bai, aldiari aldiro janzkera eta antolamenduarekin, batzuetan iraupen luzeko bizialdiarekin (jentiltasuna, kristautasuna), bestetan aldi laburragoz (erlijio erromatarra, islama); baina, edozein kasutan, beti sinestun-elkarteren batekin. Erljioak askori balio izan dio bizitzan norberaren uste, iritzi eta segurtasunen araberrako gidarekin ibiltzeko.

Erlijiotasun ezberdinek balio komun batzuk ere izan dituzte, herri-tarren artean bezala erlijio-erakundee-tan: trazendentziaren bilaketa, sines-tunen arteko lagunartea (Eliza, Sinagoga, Umma; eliz kofradia laiko-ak), bizi eta hildakoen senitartea (hilerri zainduak), guztientzako artea (haitzuloetako santutegiak), errituen misterioa (errituzko jaiak, liturgiak), etikaren oinarri erlijiosoak (tabuak, jainkoak, ohiturak, burubide kode-tuak), mito eta sinboloen argia (mito-logia), natura eta gizakiaren ulerkun-tza, etab.

Gertatutako erlijio-trukaketak be-rak ere ez dira etorri erabateko etena-ren ondorioz, beti egon da gisa batean edo bestean bataren eta hurrengoaren arteko segidaren bat, sineskizunetan bezala erlijioaren antolaera sozialean. Eta jarraitasun horretan zerikusi handia izan du herritarren sinesmenak, hauek erakutsi izan duten atxikimendu her-tsiagatik. Horrelakoetan erlijio berriek

eskakizun sozialetara ere moldatu behar izan dute.

Herritarren azaleko adierazpen ani-tzen azpian, itaun-indar sakonagoak egon dira euskal erlijiotasunean ere, hemengo eta erbesteko esperientzia erli-jiosoekin lotzen gaituztenak, zalantzarik gabe. Horregatik, Historia bikoitz osaga-rria beharko genuke: gure balio eta lor-pen erlijioso unibertsalen ibilera deskri-batuko ligukeena (Erljioen Historia Konparatuan eta Fenomenologia erlijio-soan *Homo religiosus* deitu denarena) eta, bigarren, gure Erljio erakundetuen iragana deskribatuko ligukeena. Bata zein bestea elkarren osagarri ditugu.

Ongi aurrera egitekotan, dugun gizarte-aniztasunean eta erlijiotasun anitzean, dena da errespetagarri eta baliagarria, baita eskarmentu txarrak ere, konfesionaltasun estuei gaina har-tzeko eta geuretik kanpoko egia eta ongia geureganatzean, ordainetan, geu-rea ere eskaintzen dugun bitartean.